


Kirola Antxintxika krosa Soraluzetik Bergarara Domekar
Sutondoan Dantza taldeak 50 urte datorren urtean

Soraluzeko Hamabostekaria

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
140. alea, 2006ko
urriaren 2an





**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



**MAKINA BEREZIAK
LERRA AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

Arinak arinegi



LOIOLA ALTUNA

Herri txikiek xarma berezia dutela diote. Halakoa da Plaentxia. Zatarra itxuraz, baina bihotz onekoa. Herri sinpatikua. Baina herri txikiarentzat ez da erraza biztanle kopuru handiagoa duten herri edo hirien erdian bizitzea.

Eguneroko kontua da, gurasoak biltzen direnean mutil txikiek beraien artean jolasten dute. Plaentxiak ordea ez du lagunik inguruan gerra pixkat emateko. Ondorioa ere egunerokoa da, goxoki bi eman umea ixiltzeko. Horrela pertsona helduek lasai hitzegin dezakete, erabakiak hartu eta mundua konpondu. Mutikoa hor dago goxokiak eskuan dituela, eta noski, ez du erabakietan parte hartzen. Txikiegia da.

Baina mutikoak pertsona txikiak dira, ez tontoak. Ulertu,uste baino hobeto ulertzen dute inguruan esan eta egiten direnak, eta noski helduek dituzten behar berberak dituzte. Mutikoak gaixotu egiten dira eta ospitalera joan behar dute. Eibar, Gasteiz, Bilbo eta Donostia ere joaten dira, ikasi, lan egin edota bertan egin beharreko erosketa eta gestioak egitera. Hori bai, goxokiak hartu eta ixilik gelditzen badira, bizitza helduek erabakitakoaren arabera antolatuta beharko dute. Arrasatek, adibidez, egunero 17 aukera ditu, astelehenetik ostiralera, Donostia joateko. Plaentxiak 4

HOBE GOIZEZ GAIXOTZEA, EGUERDITIK AURRERA EZ BAITAGO AUTOBUSIK MENDAROKO OSPITALERA JOATEKO

besterik ez. Bergarak Eibar bisitatzeko autobusak ordu erdiro; Plaentxiak orduro. Bilbora joateko... non dago Bilbo? Gaixotu, hobe goizez gaixotzea, eguerditik aurrera ez baitago autobusik Mendaroko ospitalera joateko.

Aldiro-aldiri, dena den, mutikoek badute helduei ohiko goxokiak baino zerbait gehiago ateratzeko aukera. Adibidez, denen artean sortutako zaborra botatzeko eskatu edo hobe, iturrira, anaia nagusiarentzat ur bila joateko agindua jasotzen dutenean. Donostia joateko egunero 17 aukera izatea larregi iruditzen zait, baina ez legoke gaizki 4 baino gehiago izatea. Edo bestela autobus itxurako moto hori hoietako bat, mutikoa ospitalera bere kabuz, goiz eta arratsalde joan dadin.

Badakit berandu nabilela. Gurasoen elkarteko nagusiak goxokiak banatu zituela, eta mutikoa ur bila fin joan arren, arinak arinegi pasatzen direla Plaentxiatik. Baina adi mutiko! Datozen hilabeteetan helduentzat garrantzi handia duen hauteskunde hitza entzungo duzu. Halakoetan, ez dakit zergaitik, gurasoak oso urduri jartzen dira tio gehiago maite duzula esaten badiezu. Ez zara ohiko goxokiekin konformatuko, ezta!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: Aitor Madrid eta Silvio Vaz
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA




ERREPORTAIA

2006-2007 ikasturtea euskaltegi berrian hasiko dute Sorluze Aek-ko irakasle eta ikasleek. Lokal berria, Ludotekaren parean kokatua, irailaren 26an inauguratu zen. Hori aitzaki hartuta prestatu dugu e ale hontako erreportaia, euskaltegia herritarrei hurbiltzeko asmoz.

Zorion agurrak



Leire Etxabe Madrid
Irailaren 27an, 2 urte
Zorionak pottola!
Muxu haundi bat!
Etxekuen partez



Iraia de los Santos Perez
Urriaren 1ean, 3 urte
Zorionak eta muxu haundi bat!
Etxekuen partez



Mikel Santiago
Irailak 30xan, 3... urte.
Zorionak Mikelon!
Merendolian zain gare.
Pil-pileanekuen partez.



Goretzi Goigana
Urriaren 6xan 17 urte
Zorionak neskatu!!
Familixian partez



Nora Mendia
Irailak 30ean,
2urte
Zorionak pottola!!
Asko maite zaitugun
etxekuen partez.



Jabier eta Benita Galarraga
Irailaren 22xan
Urrezko eztaiak
Zorionak paeja eta urte asko-
tara!!
Etxekuen partez



Ariane Criado eta Irea Rascon
Urriaren 1ean 5 urte
Azaroaren 4an 2 urte
Zorionak pottolak!!
Muxutuak.
Gurasoen eta tien partez.

Oharra

- **Nafarroa Oinezarako boluntarioak** behar dira, saltoki, txozna, segurtasun...lanetarako. Telefonoak: 948631558 / 948625215 / 600344655
Imeila: oinezbera@hotmail.com
- **Gorrigaineko errifetako zenbaki sarituak:**
 - Sari berezia: 2144
 - Txurrukan afaria: 1465
 - Talasoterapia: 2834

Jaiotakoak

- JOEL DONOSO BOUZAS
- ALEJANDRO ETA JOSUNE MOVILLA ROSA

Hildakoak

- BARBARA DE JESUS PERA
- JOSE SANTIAGO IBARGOYEN IRAOLA

Gutunak

Pedro Jose, gure artean nahi zaitugu 1989ko apirilaren 16an Pedro Jose Etxeberria Lete sorluzetarra atxilotu zuten. 2006ko irailaren 10ean ezarri zioten zigor osoa bete zuen eta oraindik, Castelloko espetxean jarraitzen du Parot doktrina aplikatu diotelako eta horren ondorioz, urte gehiago eman beharko ditu espetxean, hau da, bizitza osorako zigorra ezarri diote.

Haserre, oso haserre gaude. Ez dugu hitzik Pedro Joserekin egin duten bidegabeke-riak guregan sortzen duen haserre adierazteko, etxean behar zuelako, gure artean.

Pedro Jose beste preso askoren moduan, bere jaioterritik gertuko espetxean egon beharrean, legeak agintzen duen bezala, Sorluzetik ehunka kilometrotara dagoen espetxean egon da azken 17 urteetan. Horrek, bisitara joandako senide eta lagunak ehunka kilometro egitera behartu

ditu.

Pedro Josek, beste preso askoren moduan, zigorraren _ 2001eko uztailan bete zituztanean, kalean behar luke espetxe politikak agintzen duen bezala.

Pedro Josek, beste preso askoren moduan, 2006ko irailaren 10ean etxean behar zuen zigor osoa bete ondoren. Nazioartean onartzen diren eskubideen printzipioen aurkako adibide batzuk besterik ez dira goian aipatutakoak, eskubide urraketak ugariak baitira Espainia eta Frantziako espetxeetan, eta hori salatu nahi dugu le-
rro hauen bidez.

Pedro Jose, gure artean behar dugu ORAIN.

SORLUZEKO ETXERAT

Euskal Ohitura?

Jakina da euskaldunon artean zelako garranzki dakan gure artean kaso txiak. Badare hainbat mota, betulak mugituz (lotsati erara), eskua altxatuz, "iepa" esanez,



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Astialdiko begiraleen lan poltsa

Txatxilipurdi Elkarte. 18 urte edo gehiago izatea. Txatxilipurdik antolatu

Ekintzak

"Uda bakean 2006"

Saharako umeen harrera, 2006ko uztail eta abuzturako. Barakaldoko Udala. Epea: 2006-05-31. Harremanetarako telefonoak: 675 711 955 / 665 729 303.

Iragarkiak

- **Ingelesko partikularra** emango duen norbait behar da, 1.go eta 2. Batxilergo mailetarako. Telf: 943751227 / 663127014
- **Irakasle alemaniarra** Esperientzia zabala duen aleman filologian lizentziatua Ahozko eta idatzizko teknika berriak Michaela, Telf: 943752111 / 649318385
- **Pisua salgai**, 60m, bi gela, egongela, sukaldea eta komuna. Duela 3 urte berriztua eta guztiz jantzia. Prezio oso interesgarria. Tlfnoa: 943751175/639275675
- **Ingelesko irakaslea** prest eskolak emateko. esperientziaduna. maila guztiak: lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, azterketa ofiziala...

EDURNE ORBEA

Zer irizten dotsazu?

Irailaren lehenengo egunean erabateko aldaketa eman zen autobusen ordutegiari dagokionez. Honek arazo bat baino gehiago sortu du herritarrengan, ondorioz hainbat herritarrek plataforma sortu dute udaletxeko plenoan egon ondoren.

Ze iruditzen jatzu autobusen ordutegi aldaketia?



Irati Iñurrieta
17 urte, ikaslia

Nik asteburuetan erabiltzen dot gehixenbat, eta oso gaizki etorri jata aldaketia. Behin eta berriz esaten dozkue garraio publikua erabiltzeko, baina nun dare baliabidiak? Aurrera jun biharrian atzera goiaz.



Jabier Etxabe
47 urte, tornerua

Oso gaizki, zergak danok ordaintzen douz, beraz danok zerbitzu berdinetarako esku-bidia dakau. Pasaran gertzen dan herri bat gara, eta ez dozkue kontuan hartzen.




Jon Lamariano
18 urte, ikaslia

Egundoko ezustekua izan zan, gainera nik Donostin ikasten dot eta enaiz Eibarren tren hartzera ailegatzen. Honen konponbidia gainontzeko herrixetan beste autobus jartzia izango litzake.



Ane Ansola
58 urte, langilia

Txarrerera jun da, bape bentajarik ez dozku ein eta ez jata egokixa iruditzen. Len gutxi zeren eta oin berriz... Premiñak ikusi eta horri egokitxu biako litzake ordutegixa eta kopurua.



Gonzalo Solana
58 urte, konstruktoria

Ez jata bape ondo irudittu, eraren batera hori soluzionau biako litzake. Nik ezta kat kotxerik eta nere moduan jente askok, beraz gehixau eta trenekin konkordatzian jartzia proposauko neuke..



Andreina Perez
22 urte, ikaslia

Gaizki benetan, nik erabiltzen dot eta oin izugarritzko kaltia da. Gutxienez lehen zerenak jarri biako leukez eta horrez gain puntualidadia pixkat zaindu.

MABE
ILEAPAINDEGIA



**I ESTETIKA
I SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324
Mug.: 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



KONTZENTRAZIO JENDETSUA AUTOBUSEN ARAZOAGATIK

Ehundaka herritar batu ziren Soraluzeke Garraio Publikoaren Aldeko Plataformak deitutako kontzentraziara. Irakurri zuten idatzian, Diputatuarekin biltzeko eskari publikoa egin zuten, besteak beste. Sinadurei dagokienez, plataformak 2972 herritarren babesa jaso du egun hauetan. Koldo Azkoitia diputatuarekin aste honetan bilduko dira plataformakoak.

Mendi Taldea errelebo eske

Urriaren 3an, martitzena, Soraluzeke Mendi Taldeak bilera baterako deialdia egin du, oraingo egoeraz eta etorkizunaz eztabaidatzeko. Oraingo arduradunek taldeko ardura uzteko gogoia erakutsi dute eta hauen

lekua ordezkatzeko jendea behar dute. Arratsaldeko 8retan, Kiroldegiko Erakusketa Aretoan izango da bilera. Mendizaleen presentzia eta iritzia eskertuko ditu Mendi Taldeak.



MENDI GARBIKETA

Irailaren 30ean Gaztetxeak irteera antolatu zuen Ezoziko auzora, inguruetan garbiketa egiteko asmoz. Argazkian mendian batu eta Plaza Barrian erakutsi zituzten zaborrak.

Igogailu publikoa Errekaldian

Hasiak dira jada Errekaldean igogailu publikoa egiten. Lanok Provasna eraikuntza enpresak burutuko ditu, Udalarekin bere egunean egindako hitzarmen bat dela medio. Igogailuak 3 geltoki izango ditu. Lehenengoa Errekalde mailan. Bigarrena erdi bidian, Errekalde 30eta 32 ko bizilagunei irisgarritasuna bermatzeko eta hirugarren geltokia parkeparean izango da. Pasarela bat jarriko da igogailua eta parkea lotzeko.



Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Urriaren 11an egingo udal kiroldegian zozketa, eguerdiko 12etan. 34 etxebizitza zozketatuko dira 170 lagunen artean. Gainontzeko 16 etxebizitzak etxeak erakitzen hasten direnean zozketatuko dira, eta alkilerrean jarriko dira. Ez dira beraz etxebizitza sozialak izango, hasieran esan bezala.



ARMENDIA JATETXEA



Ezoziko Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Euskaltegi berria

ikasleentzat

2006-2007 ikasturtea euskaltegi berrian hasiko dute Soralezeko AEK-ko irakasle eta ikasleek. Lokal berria, ludotekaren parean kokatua, irailaren 26an inauguratu zen. Ekitaldira jente ugari hurreratu zen, euskalgintzarekin edo euskaltegiarekin loturaren bat dutenak gehienak. Euskaltegiko arduradun Iñaki Korta eibartarrak hartu zuen hitza, eta oso pozik agertu zen lokal berriarekin. Euskaltegiaren historiatxoaz azaldu ostean, eskerrak eman zizkien udaleko ordezkariari eta herriko euskalgintzari jaso duten babesari eta laguntzari gatik.

SORALUZECO AEK

aprende euskara

de la mano de *æk*

PLAZO DE MATRÍCULA HASTA EL 6 DE OCTUBRE

SISTEMA DE BECAS CON LA COLABORACIÓN DEL AYUNTAMIENTO

TELÉFONO 943201379

æk
zure bidelaguna

902 36 22 94
www.aeknet.net



Ikasle talde bat Iñaki Korta irakaslearekin

2006rako egitasmoak

- Orain dauden bi taldeak sendotu eta ahal bada berriak sortu
- Lan arloan sartu eta Soralezeko enpresetan eragin. Egun, EMUN Soralezeko enpresetan diagnosis egiten ari da
- Berbalagun egitasmoan parte hartu Pilpilean, EHE eta Udalarekin batera
- Etorneri euskera eskolak ematen jarraitu. Aurten ere pare bat gela aurreikusten dira.
- Datorren urterako autoikaskuntzarako gela prestatzea, mediateka egokiarekin (ordenagailuak, zintak...)

Jende ugari inaugurazio ekitaldian

Inaugurazioa xumea baina jendetsua izan zen euskaltegi berrikoa. Ekitaldia ohorezko aurrekuarekin hasi zen, liburutegiko hall-ean. Txakarrak egin zuen dantza, Eneko Beretxi txistularia lagun zuela. Ondoren, Etxebarri eta Arrillagak bertso bana botatu zuten. Hitza hartzen lehenengoa Iñaki Korta izan zen, euskaltegiko irakasle eta arduraduna. Bere ostean Mikel Leunda euskera teknikariak eta

Gipuzkoako AEK-ko arduradun batek ere hitzegin zuten. Denak pozik agertu ziren euskaltegi berriarekin. Ekitaldia luntz gozo batekin bukatu zen. Bertan izan ziren besteak beste alkatea eta EAJko eta SAHko zinegotziak, Eibarko AEK-ko irakasleak, Oskar Elizburu eta Maite Etxeberria aek-ko irakasle berteranoak, euskaltegiko ikasle talde bat eta herriko euskaltzale mordoak bat.



Txakarra euskaltegiko hall-ean aurrekuarekin dantzatzen

ELKARRIZKETA

Puri Lemos euskaltegiko ikaslerik beteranoena da. Urte hauetan izandako esperientziaz galdetu diogu.

Noiz hasi zinen AEKn?

Orain dela 24 urte hasi nintzen, Eibarren. Bi urtez egunero hartu nituen klaseak, egunean hiru ordukoak. Gero laga egin nuen eta urteetan ez nuen euskararik ikasi. Orain dela zazpi urte berriz hasi nintzen Plazentziara ezkondu eta gero.

Zergatik erabaki zenuen euskera ikastea?

Gustoko nuelako, beti gustatu izan zait euskera hitzegiten entzutea, batez ere umei.

"Azken urteetan ikasle kopurua jeitsi da. Jende gehiago etortzea komeni zaigu"

Haurdun geratu nintzenean berriz hasi nintzen, etorkizunean umeari laguntzeko.

Zer da gehien kostatu zaizuna?

Honek ez dauka bukaerarik, beti dago zerbait berria ikasteko. Zaila da euskera ikastea, baina saiatzen bazara lor daiteke. Niri gehien kostatzen zaidana hitzegitea da, kalean batez ere.

Zer oroitzapen gordeko duzu euskaltegi zaharretik?



PURI LEMOS
EUSKALTEGIKO IKASLEA

Hotza. Negu oso hotzak pasa ditugu euskategian. Hala ere giro oso ona zegoen, batez ere hasierako urteetan jente gehiago zebileen. Azken urteetan ikasle kopurua jeitsi egin da eta zailagoa da maila bereko ikasleekin taldea osatzea. Jente gehiago etortzea komeni zaigu.

Eta euskaltegi berria?

Oso ondo dago eta pozik gaude denok, ordua zan!

1967 - 2006: la berrogei urte helduak euskalduntzen

Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko Gau-eskolak ikastolaren sorrerarekin batera hasi ziren Erregetxean 1967-1968.urtean. Ikastolako lehenengo juntak bultzatuta Iñaki Iñurrieta, Jon Aldazabal eta Mertxe Epelde gau-eskolak ematen hasi ziren, Oñatibia metodo radiofonikoarekin. 1976an gau-eskola,

ikastola bezala, Batzokiko lokaletara pasa zen. 1983an eibarko aek-rekin harremanetan hasi eta gau-eskola koordinakundean sartu zen. Urte hartan ikasleriak goia jo zuen, 90 ikasle izateraino. 1987an aek Batzokitik Maisuen Etxera pasa zen. Aurrerantzean kiroldegian izango da. Osasunakin urratu!!



Ikasle talde bat Gaztainerre eguna ospatzen 1984. urtean



Ikasle eta irakasleak mintza praktika egiten, Atxolin parean




2000. urtean asteburu-pasa joandako ikasle eta irakasleak



Bi urtean behin Korrika antolatzen du Aek-k

Debajazz-en hirugarren edizioa urrian



Soraluzeko Errabal Kultur Elkar-teak Debajazz, Debabarreneko jazz zirkuituaren edizio berri bat anto-latu du hil honarako. Jazz kontzertuak eskualdeko bost herritan eskeiniko dira, urriaren 20tik 28ra

bitartean. Plazentziara Itsaso Gon-zalez eta bere taldea etorriko dira, hilaren 21ean. Honako egitaraua prestatu dute antolatzaileek :

- **Urriaren 20an, Elgoibarko** Herri antzokian, 22:15etan: **Reyes del K.O.**
- **Urriaren 21ean, Soraluzeko** libu-rutegiko hall-ean, 22:00etan: **It-saso Gonzalez**
- **Urriaren 22an, Mutrikuko** kultur etxean 19:30etan: **Jeronimo Mar-tin hirukotea.**
- **Urriaren 27an, Debako** kasinoan, 22:00etan: **Terela Gradin &Ma-nolo Gutierrez** pianojolea
- **Urriaren 28an, Elgetako** kafe ant-zokian, 22:00etan: **Ortophonk, Wagon Cooking**

Juan Manuel Arruabarrena erakusketa

Juanma Arruabarrenaren azken margolanak eibarko Topalekun ikusi ahal izan dira pasa den aste-etan. Erakusketa igandera arte egon da zabalik eta Juanma oso pozik ge-ratu da publikoaren erantzunare-kin.



Yoga klaseak hastera doaz

Urriaren 2an, astelehena, ikas-turte berria hasiko da yogazale-entzako. Klaseak astelehenetik ostegunera izango dira. Astele-hen eta asteazkenetan 10etatik 11:30etara goizez eta 19:30etatik 21:00etara gauzez. Astearte eta ostegunetan, berriz, 9:30etatik 11:00etara goizez. Informazio gehiago 615769110 (Jabi) edo 696220940 (Sabin) telefonoetan.



Zinemaren inguruko batzarra egin da

Herriko kultur taldeetako eta Udaleko ordezkariak zinemako proiektuaz eztabaidatzen aritu ziren irailaren 19an. Zenbait el-kartek euren zalantzak agertu zituzten proiektuaren inguruan, zeinetan zinema bi zatitan ba-natzea aurreikusten den, antzo-kian (150 eserleku) eta erabilera anitzerako gunean.



SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errebal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13



Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Dantza Taldea urrezko ezteien atarian

Datorren urtean, Soroluzeko Dantza Taldeak 50 urte beteiko ditu. Lehenengo aldiz, Ezoziko Erromerian egin zuen dantza Soroluzeko Dantza Taldeak 1957an eta ordutik, 50 urteko ibilbidea egin du.

Urteroko Euskal Jai astearen barruan, izango da Dantza Taldearen 50. urteurrenaren ospakizun nagusia ekainaren 9an, hain zuzen ere. Ordurako prestaketak egiten hasiak dira Euskal Jai Batzordekoak eta bilerak egiten dihardute, orduko eta gaurko dantzari eta txistulariekin.

Euskal Jai Batzordetik Dantza Taldearen inguruan jende asko ibili dela adierazi digute, "bai dantzan, bai txistua eta danbolina jotzen, baita lagundu eta animoak ematen ere dantzazale asko". Horien guztien belaunaldiz belaunaldiko izen-zerrendak osatzen ari dira, "50. urteurreneko ospakizunean denak batzea" izango baitute erronka. Berrehun lagunetik gorako zerrenda egina dute, eta hurrengo asteetan oraindik izen gehiago azalduko direlakoan daude.



Euskal Jai Batzordekoak eta urteurreneko prestaketetan ari direnetariko batzuk

Deialdia luzatu dute: urriaren 6an, arratsaldeko 7etan, goiko eskoletan lehenengo ensaioa egingo da. "Dantzan ibilitako guztiak" gonbidatu dituzte Batzordekoek, "ahalik eta jende gehien batu nahi dugu-eta". Bertan, urteurrenerako guztien artean

dantza batzuk prestatuko dituzte. Urtetan dantzatu izan diren ohikoez gain, garai batean Soroluzen egiten zirenak ere berreskuratuko dituzte. Horrez gain, izen-zerrendak osatzen jarraitzeko ere izango da ensaioa.



1973. urteko Euskal Jaian Soroluzeko Dantza Taldeko gaztetxoak. (Joseba Gorostidik lagatako argazkia)

**Lehenengo ensaioa
urriak 6an, arratsaldeko
7etan, goiko eskoletan**

**Berrehun lagunetik
gorako
dantzarien zerrenda
egina dute**

**"Dantzan ibilitako
danak batzia da as-
mua, zahar eta gazte"**



DENBORALDI HASIERA BIKAINA Soraluze futbol taldea egiten ari dena. Lehenengo bi partiduak irabazi ostean, zapatu honetan banako berdinketa lortu du talde nagusiak Antzuolara egindako bisitan. Soraren gola Markok sartu zuen.

Eskaintza ugari udal kiroldegian

Kirola praktikatzeko aukera zabala dago aurten ere udal kiroldegian. Igerilekuari dagokionez, aurten lehen aldiz 2 eta 3 urteko umeeri igeri ikastaroa emango zaie. Hontaz gain, urtero bezala, maila eta adin guztie-

tarako igeri eskolak eskeiniko dira, bai eta Aquagym ere. Aerobica, mantenu gimnasia eta "kemakilos" ere aurtengo aukeren artean. Dantzen atalean, saltsa eta sabel dantza exotikoak.

Antxintxika krosa urriaren 8an

Bergarako Antxintxika triatloi taldeak antolatuta, krosaren bigarren edizioa jokatu da domekan goizeko 11etan, Plaentxiatik Bergarara 10kmko ibilbidean. Tlfnoa:769765



EMAITZAK

ESKU PILOTA

LASKURAIN

Elizondon

- González-Laskurain 22
- Capellan- Eulate 12

Ereñon

- Xala-Laskurain 22
- Titin-Elkoro 17

JAUREGI

Bergara

- Jauregi (sic.)-Apezetxea 12
- Muguruza-Gutiérrez 22

Gipuzkoako txapelketan, Añorgan

- Erroizenea-Jauregi 22
- Onsalo-Galarraga 9

Aginagan

- Erroizenea-Jauregi 22
- Lizarra-Elizalde 12

ATXOTEGI

DV tomeoa

- Atxotegi-Otxandorena 22
- Goikoetxea-Landaburu 8

Gipuzkoako txapelketan

- Atxotegi-Loiola 22
- Sancho-Domínguez 13
- Atxotegi-Loiola 22
- Muguruza-Larrañaga 15

FUTBOLA

- Antzuola 1-Sora 1 (erreg)
- Sora 1- Uda 0 (jub.)
- Elgoibar 8 - Sora 0 (kad.)

AGENDA

FUTBOLA

Urriak 7, zapatua 16:00

- Sora-Zestona (erreg.)



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

ELIZPE
Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



etxera
EUSKAL PHESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

Telefonia 75 24 09



EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20

Tere Couto

“Berriz jaioko banintz maistra izango nintzateke berriz ere”

Tere Couto (Orense, 1946) eskola-maistra 1970. urtean etorri zen Sorraluzera Galiziatik. Irakaskuntza izan da bere bizitzako ofizioa, Sorraluzeko Jose Maria del Moralen lehenengo eta Elgoibarko ikastetxe batean ondoren. Azken urteak HHI-EPAn eman ditu zuzendari eta irakasle lanetan. Aurten hartu du erretiroa.

Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo urteak herri eskolan?

Klaseak oso jendetsuak ziren orduan. Nik banituen lehenengo urtean 38 ume, 4 urtekoak, eta horrelako beste bi gela zeuden. Ehundik gora ume guztira. Eta ni zoragarri gustora. Umeak betidanik gustatu izan zaizkit. Bokazioa da nirea, umetatik izan nahi nuen eskola-maistra.

Elgoibarko eskolan ere ibili zinen

10 urte egin nituen Elgoibarren, 84tik 94ra. Akordatzen naiz zelako estuasunak pasatu nituen urte baten. 7. mailako gela batekin elkarri indarrak neurtzen ibili ginen, bi asteazte zehar. Ni esplikazioak ematen eta gelako 4 edo 5ek bakarrik egiten zidaten kasu, besteek libururik ireki ere ez, zarata egiten. Bigarren asteazte zera esan nien: "entzun hau: niri soldata ederra ordaintzen didate hona etortzearren, baina ez naiz etorriko gehiago denbora galtzera. Hemendik aurrera laboreak ekarriko ditut, gantxilloa egingo dut." Hori entzundakoan batzuk protestaka hasi ziren eta poliki-poliki jarrera aldatzen hasi ziren.

Ikastetxetik EPARA. Zelakoa izan zen aldaketa?

Hasieran ikaratu egin nintzen. Nire ikasle izan zirenen gurasoak etorri zitzaizkidan eta arraroa izan zen, baina ohitu nintzen. Guztiz desberdina da hau. Danetariko jentea etortzen da eta bakoitzak bere historia dakar, bere bizitza esperientzia. Hori oso garrantzitsua da nere ustez,



"Bokazioa da nirea, umetatik izan nahi nuen eskola-maistra"

esperientzietatik asko ikasi eta irakasten delako. Ezagutu dut jentea zenbakiak ere ezagutzen ez zituena, eta hala ere, 5 seme-alaba hazteko gai izan dana.

Ze giro dago ikasleen artean?

Giro ona. Giza harremanak eta tolerantzia lantzen saiatzen gara. Oso polita da ikustea eskolan ibili dena ibili ez denari dakiena erakusten.

Norbaiten urtebetetzea denean talde desberdinak harremanetan jartzen ditugu eta giro polita sortzen da. Urteazte zehar egun berezi batzuk ere ospatzen ditugu, San Blas eta Santo Tomas adibidez, eta jentek gustora hartzen ditu.

Zer esan nahi diezu ikasleei?

Jentea animatu nahi dut EPA ra etor dadin, gizonezkoak batez ere, gehiago kostatzen zaie eta. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet EPAREkin kolaboratu duten instituzio eta pertsona guztiei: udala, karitas, asistentzia soziala, herriko prentsa... urte hauetatik oroitzapen zoragarriak gordeko ditut. Berriz jaioko banintz, maistra izango nintzateke berriz ere..



kutxa
gizarte ekintza

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Sorraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Argazki zaharra



Iturria: Jose Angel Basauri

Dantza Taldia 1957xan

1957ko Ezoziko erromerixan, abuztuan, talde osuan lehenengo ekitaldixa:

Goittik hasitta, ezkerretik eskumara:

1. go ilaran: Jose Ignacio Martinez, Jesus Garitao-
nandia, Luis Mari Albisua, Jose Luis Alberdi (+),
Jabier Gabilondo, Don Enrique apaiza, Jabier Al-
dazabal, Moises Altuna, Jose Luis Axpe, Vicente
Cerreon (+). 2. ilaran: Agustin Gabilondo (+), Bego-
ña Gantxegi, Ezozki Zangitu, Ernestina Taapken,
Patxi Beitia (Bermioko irakaslia), Jose Ignacio
Laskurain, Jabier Kortazar, Moises Arruabarrena,
Juan José Arrillaga, Jabier Aristi.

3. ilaran: Miguel Alngel Plazaola, ezezaguna, Rosa
Mari Aizpiri, Mariasun Gantxegi (+), Maria Jesus
Mendia, Mertxe Barrutia, Maria Jesus Aldazabal,
Maribel Agirre, Marifran Aizpuru, Lupe Legaristi.

4. ilaran: Jose Luis Perez Sarasketa (txistularixa),
Ezozki Basauri, Mari Lourdes Maiztegi, Maria Elena
Urizar, Anabel Aldazabal, Julio Basurto "Txito"
(irakasle eibartarra) (+).

Lehiaketa

Saihesbidia...

Aurreko
aleko
erantzuna

Igarateko iturririxan, mineral zapore haundiduna eta
inguruak budinian berezko okre kolorezkuak zekazena.
Osasun ezaugarri ezin hobiak ei zittuan hango urak.
Baina Eibarko ur deposituetarako Sagar Errekako
errekian uren probetxurako lanak ein zittuenian
desagertu zan.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Atxolin aldi bizi ei
zan sasoi baten
bidelapur famaturen
bat. Zela zekan
izena?

- ‘ Txakua
- ‘ Txandrua
- ‘ Txarakua

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



SARIA



TXURRUKA JATETXEan
bi lagunentzako **afaria**

SARIA
Fisioterapia saioa
Ormazabal
Fisioterapia Zentroan
AURREKO ALEKO
IRABAZLEA
Teresa Eguren



Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA





Ugaraxo

2006ko urriak 2



Gu ere hemen gaude !!





2 URTEKOAK GARA ETA HEMEN GAUDE!!!

Kaixol!

Zuek oraindik ez gaituzue ezagutzen, baina hemendik aurrera gure berri ere izango duzue. Gu bi urteko haurrak gara eta aurten hasi gara eskolan. Argazkian ikusiko duzuenez haur pila bat gara, 40 guztira. (24 mutil eta 16 neska)

Gehienok pozik etortzen gara, bertan gure laguntxoekin jolasteko aukera dugulako, baina batzutan gure gurasoengandik banatzeruzkoan pena pixka bat ere sentitzen dugu, dena dela, laister pasatzen zaigu jostailu pila hori gure zain dagoela ikusten dugunean.



TXIKI - INKESTA

Laugarren mailakoak Segurara joango zarete 5 egun pasatzera. Nola prestatu duzue txangoa? Zer egingo duzue han?

BERTA ALONSO, 8 URTE

Egun baten merkadillo batera juango gara erosketak egitera gero afari-merienda egiteko. Monitoriak jua egingo dira eta andereñuakin geratuko gara..



LANDER OLEAURRE, 9 URTE

Gelako guztiak juango gara Segurara. Lehenengo aldia da juaten naizela. Igual base-ri bat izango da, imagina-tzen dot donostiatik gertu egongo dala.



MIKEL OREGI, 9 URTE

Aste osua pasauko dogu han. Ikasi egingo dogu, jolastu, abestu, erliak ikus-tera jua...danetik. Gurekin andereño Ana etorriko da.



MAIALEN OREGI, 9 URTE

Abestixak gabiz ikasten han kantatzeko: "Barnetegira goaz" eta "Txaparroren abes-tia".. Lehenengo aldixa da 5 egunetarako goiazena eta gogua dakat.



IRENE PEREZ, 9 URTE

Etxe haundi bat da. Ordenadorietan be ibiliko gara, interneten. Egun honetan euskeraz asko hitzegiten badogu bolo gorri-xak emongo doskuez, beste-la berdia.



INAZIO PEÑALBA, 9 URTE

Ikastera goiaz eta bolatoki-xan be jolastuko dogu. Gau bat pasatzera urtian behin juaten gara. Lo gitxi egiten dogu, ohe desberdinak dira eta.



Txaparroren kanta

Txaparro abila,
buruan bonbila,
gorputza lodia,
soineko txikia,
doa jirabiraka
bola borobila



BOLATOKOA BIZI DA
AUPA GORA !! AUPA BIBA!
BOLATOKIA BIZI DA
BIRLAK DANTZAN HASI DIRA.

Irakurlea, abeslaria,
ikertzailea, ibiltaria,
zinegilea, kirolaria,
detektibea, margolaria,
pirata eta dantzaria.



DENBORAPASAK

Jolastu lagunekin denborapasetara

Ea zenbat asmatzen dituzun...

BIKIAK BAINA EZ BERDINAK


Sei alde edo desberdintasun daude bi marrazki itxuraz berd in hauen artean.



Ea, ea, ea, ea zelako habila zaren!

Hemen dituzu hiru denborapasa dibertigarri. Konzentratu zaitetz eta ea gauza zaren hirurak asmatzeko.


MARRAZKI ZENBAKIDUNA



ZENBAKIKATEATUAK

9 digitu	5328109	681792	32963	86530	7918	518
	390417265	6942057	719250	34210	94856	584
	625071849	7086912	815634	36897	95921	9438
	803742951	7912850	830916	42751	4 digitu	9720
7 digitu	8439521	945273	48730	0825	3 digitu	851
	0387145	6 digitu	987341	51912	3125	075
	1034576	092581	5 digitu	56087	3927	170
	2674953	153908	09876	63171	3928	235
	3175048	238195	15374	65381	4067	279
	4729341	374620	16158	74259	5309	409
	4918273	467019	25749	75343	6247	423
	5210374	523687	25771	78396	7253	453
						873
						2 digitu
						13
						36
						55
						98

Diagraman koka itzazu honako zenbaki hauek





Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

SORALUZE • Errekalde kalea



- 2 - 3 logelako etxebizitzak
- Garajeak
- Prezio interesgarriak

KALITATE GORENEKO MATERIALEZ EGINAK

EZ IZAN ZALANTZARIK ETA KONTSULTA IEZAGUZU



Rosario kalea, 21 - behea

20870 ELGOIBAR

Tel. 943 74 44 67 • Mob. 685 75 29 95

J.M. Azpeleta Iturricastillo

*Edurne Gabilondo Loyola
Zuzenbidean Lizentziatua*

**2006ko udako
eta jaixetako
Argazki Lehiaketa**


**Irabazlea:
Mikel Valero**

**Saria: Argazki
kamara digitala**

Photosynthesis Argazki Denda



PHOTOSYNTHESIS



**argazki laritza
t e l : 9 4 3 1 2 1 5 0 0**